

...eta

Kitto!

913 zkia.
2014-XII-19

Zintzoak izan gara?

OLENTZEROREKIN HITZORDUA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Kirurgia

- Miopia
- Kataratak
- Presbizia

Begi lehorraren tratamendua





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ASTEAN ESANAK

"Komunikabide askotan ez da ahots erreleborik izaten. Beldurra izaten zaio hainbat zutabegile eta iritziemaileri nahikoa dela esateko, tartea hartzeko eta emateko garaia dela. Ahotsak kroniko bihurtzen direnean misterioa desagertu egiten da"

(KOLDO ALMANDOZ,
KAZETARIA)

"Kooperatibismoaren teoriko batzuek diote 500 bazkidetik gora zaila egiten dela ereduari eutsi ahal izatea. Gaur egun 100-150 bazkideko kooperatiba lehiakorrek badaude; haiek izan daitezke etorkizuneko modelo"

(BALEREN BAKAIKOA,
EKONOMIAN KATEDRADUNA)

"Herri Irratiaren likidaziotik salbu geratu ziren esale euskaldunek gutxi erabiltzen dute euskara. Zenbaitzuentzat erakuslehi, edo mozorro, aproposa den Durangoko Azokan ere Forki euskal kulturagileekin gaztelaniaz sumatzeak, esaterako, tristura eragiten du"

(XABIER LASA,
KAZETARIA)

"Euskal musikan klase ertaina galtzen ari da. Ostatu eta gaztetxeetako kontzertuak indartuta daude eta horri esker bizirik diraute hainbat artistek. Jaialdi handiek ere krisiari aurre egin diete, baina hor bakarrik talde handiek dute jotzeko aukera. Erdi mailan zeuden taldeentzat 200 edo 300 lagunentzat egiten ziren kontzertuak desagertu ziren aspaldi"

(JOSEBA IRAZOKI,
MUSIKARIA)

KEIANA EGIN.- Hanka egin, ospa egin. "Horrek be azkenian keiana egin jon".
KEIXARA/KEIXAPERU JUAN.- Gerezi arbolapean jarri, txoriak gereziak jatera doazenean tiroz akabatzeko. "Gaur gabetik juan dira keixara, urtian behiñeko itzari amorratu batzuk".

eskutitzak

EPAIKETA POLITIKO GEHIAGORIK EZ!!

2011. urtean Polizia Nazionalak 20 gazte atxilotu, torturatu eta inkomunikatu zituen; zortzi gaztek, aldiz, euren etxeetatik alde egin behar izan zuten torturetatik ihesi. 2014ko irailaren 22an, 28 gazteen aurkako epaiketari ekin zion Espainiako Audentzia Nazionalak. Guztientzat sei urteko kartzela zigorra dago jokoan: atxilotze basatien atzetik gazteek komisaldegian jasandako torturei esker lortutako autoinkulpazioetan oinarritzen da akusazioa. Alferrik, orde, Madrilen epaitu dituzten 28 gazteak bezala, asko gara gure egunerokoa aske bizi nahi dugunok, gure erabakien jabe

izan eta gaurdanik bestelako eredu baten alde borrokan dihardugunok. Bestalde, Gernikan argi geratu zen PNVren jarrera herritarrek jipoitzea eta gazteak atxilotzea izaten jarraitzen duela. Hala ere, gazteok argi daukagu ez garela geldirik geratuko kartzelak betetzea amesten duen estatu faxista honen aurrean. Epaiketa politiko gehiagorik ez dugulako nahi, dei egiten dizuegu **barixaku honetan Untzagan** 19.30etan egingo den **manifestazioan** parte hartzea. **Euskal Gazteria Aurrera**, #28akereLIBRE

EIBARKO ERNAI

PIZTU. BERPIZTU

Aurreko zapatuan Topaketa Feministak egin genituen Ondarrun. Ia 600 emakume bildu ginen Euskal Herriko Mugimendu Feministaren norabide, estrategia eta erronken inguruan hausnartzeko. Ondarrutik sentsazio bereziarekin bueltatu ginen etxera: **indarrez** betetako sentsazioak, **indarrez** betetako hitzak, **indarrez** betetako eztabaidak, **indarrez** betetako taldeak, **indarrez** betetako dantzak, **indarrez** betetako irribarreak. **Indarrez**.

Euskal Herriko emakumeok argi daukagu berdinta-

sun makilatu eta faltsuan bizi garela. Izan ere, indarkeriak gure jendartearen oraindik ere mila aurpegi eta mila ahots dauzka. Horren aurrean, argi laga genuen Mugimendu Feminista **presente, aktibo eta elkarlanean** arituko dela. Mendeak, urteak... daramazkigu emakumeok etengabeko iraultza feministan. Iraultza horren kandela moreari gure birramonek, amonek eta amek piztuta eutsi diote eta Ondarrun ozen esan genuen **feminismoak indartsu jarraituko duela!**

NALUA EIBARKO FEMINISTAK

Gabonak direla-eta, **hurrengo alea abenduaren 30ean** kaleratuko dugu. Eta hurrengo **-Kirolkitto!- urtarrilaren 16an** (Erregeen astean ez da alerik izango). Edozein informazio edo zorion agur kaleratu gura duzuela, hartu ezazue, beraz, kontuan data horiek. Eskerrik asko.

GIDA KOMERTZIALA datorren astean. Urteroko moduan prest daukagu datorren urterako Gida Komertziala. Datorren astean, astelehena eta martitzena bitartean (**abenduak 22 eta 23**) jasoko duzue zuen buzoian 2015eko Gida hori. Eibarko denda eta enpresak batzen ditu gidak eta, gure ohiko banaketa sistemari jarraituta, aldizkaria jasotzen duten guztiek izango dute bere etxean.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



ARGITARAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Trio Medianoche
BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Karmelo
Urdangarin

Ospital isolatua?

Mendaroko ospitalea berezia da, eraikina berarengatik (hortan lan handia egin zuen orain dela gutxi hil den Luis Arrietak) eta baita gerta dakioken isolamenduarengatik ere. Gai horrekin lotuta, kontutan hartu beharrekoa da, ibaiarengatik edo ospitalera doan zubian gerta daitekeen istripu batengatik gaur egungo sarbidea balio gabetuko balitz, ospitalea isolatuta geldituko litzatekeela, ez bada, behintzat, oinezkoen sarbidea horretarako prestatzen.

Zubi berri bat eraikitzeko proiektua dago, eta premiazkoa da beneratzea, ospitalearen isolamendua ekingo lukeelako. Herritar kopuru handi baten premiei erantzuten dien eskualdeko ospitalea sarbiderik gabe gera daiteke, eta horregatik da garrantzitsua sarbide berri bat eraikitzea, tartean egon daitezkeen interesak errespetatuz. Espero dezagun Mendaroko Ospitalearentzat gutzituz premiazkoa den sarbide berria abian jartzea.

Eibartarrak eta makina-erreminta

1014ko apirilaren 21ean, eta Arturo Pertegaz notarioaren aurrean, José León Ciaran Arrillaga eta Eulogio Estarta Landa Elgoibarko armaginek, "Ciaran y Estarta" sozietate irregular kolektiboa sortu zuten. 5.000 pezetako kapital soziala makinak erosteko inbertitu zen batik bat. Kapital eskasiaren ondorioz, 1915eko irailaren 21ean, izen soziala aldatu eta "Estarta, Ecenarro y Cía. S.R." izena hartu zuen, makina-erremintak eraikitzen espezializatuz.

Beraz, eskualderako, eta batik bat Elgoibarrentzat, oso garrantzitsua den jardueraren mendeurrenean gaude. Makina-erremintak eraikitzen ondorengo hauek egindako lana ere ezin ahaztu: XIX. mende amaieratik Arragueta kalean ziharduen Cruz Ochoa y Cía., Errenterriko Construcciones Ramón Illarramendi (1902) eta Soralezuko Sabino Achotegi y Cía. (1910). Illarramendiren porrotaren ondoren, 1919. urtetik aurrera, Eibarko Orbea y Cía. lantegia tornuak eta fresatzeko makinak fabrikatzen hasi zen, beste produktu batzuekin batera.

Jarduera horrek gure artean duen garrantzia kontutan izanik, jarduera hori sortu zeneko mendeurrena, oso nabarmenak diren beste produktu batzuekin partekatzea inportantea da.

Etixeratzian HARRERA egitteko alkartia

Luzaruan kartzelan preso edo erbestiak ihes eginda denporia emon dabenak, etxera buelta egitteko aukeria izaten dabenian ixa dana goititik behera kanbixauta topatzen dabe eta, horren eragiñez, askok euren burua erdi galduta ikusten dabe, urtietako bizitza erritmuak goititik behera etetzian nundik nora jo bihar izaten daben jakin barik. Horrekin jakitun, 2012ko ekaiñian Harrera alkartia sortu zan, "helburu argi eta zihatx batekin: euskal andragizonak espexetik edo erbestetik bueltazian, ahalik eta laguntasun haundixena emotia jendartian egokitzeko eta haien bizitza barrixa duintasunez eraikitzeko".

Alkartiak egitten daben biharraren garrantzixa zuzen-zuzenian ikusi dau oin dala urtebete etxera bueltau zan Mikel Zarrabe eibartarrak: "Herrittik kanpora horrenbeste urte emon eta gero, kalera urtezian dana barrixa eta arrotza egitten jatxu: lan munduan sartu nahi badozu, zuere burua atzeratuta topatzen dozu, harremanetan atzera be dana ikasi bihar da, edozein tramite egitteko be zeure burua salduta ikusten dozu... Horregaittik, aurrera egin eta eguneroko martxia egitteko benetan inportantia da Harrera moduko alkarte baten laguntasuna". Eta eritzi berbera dake azken urtietan kartzelatik urten eta Eibarrera bueltau diran zazpi preso ohiak.

Alkarte asistentziala izanda, ziegako tramiatiekin hasi eta biharra topatzen laguntzeraiño, bide osuan ezinbesteko bidelagunak dira alkarteko kidiak: arlo juridiko-administratibuan, bestiak beste, NAN barriztatzeko, gida-baimena lortzeko, osasun txartela egitteko, erroldatzeko... horrelako tramiatiak egi-



ttan laguntzen dabe; osasungintzan, osasun sistema publikuak eskintzen dittuenetatik aparte, psikologo, oftalmologo eta dentista taldiak dakaz alkartiak; lehenbiziko hillebetietan izaten dan larrialdi ekonomikuari aurre egitteko laguntasuna eskintzen dabe; eta, ahal daben neurrixan behintzat, bizimodu duiña izateko ezinbestekua dan biharra topatzen laguntzen dabe.

Edozelan be, alkartiak holakuak eskintzen segidu ahal izateko herritarren babes bihar dau eta, horregaittik, bakotzak ahal dabenarekin laguntasuna emoteko bazkide billa dabiz. Baten batek lagundu nahi badau, alkartiarekin kontaktuan ipintzeko telefonua 94 415 17 22 da eta posta elektronikua, barriz, harreraelkartea@gmail.com. Interneten, Facebooken eta bestelakuetan be alkartiari buruzko informaziñua topau leike eta, jakiña, herriko preso ohiengana zuzenian joteko aukeria be badago.



Harreraren batzarra.

Lau taillar EibarLAB's-en eskutik



Teknologixa barririk hedatzeko asmua dakan EibarLAB's alkartia antolatuta, Gabonekin loturia daken gauzak fabrikatzeko umiendako taillar praktikuak antolatu ditu bixarko. Goizeko 10.00etatik 14.00etara bittartian lau taillar eskinduko ditue udaletxeko patixuan eta, horretarako, teknologixa barrixetako arlo diferentietan adituak diran hainbat lagun etorriko dira: Arquimaña arkitektura eta diseinu estudixoko Iñaki Albistur eta Raquel Ares; ehunak eta teknologixak uztartzen dituan Paola Guimerans; argixa emoten dituen brotxiak egiteko taillarra eskinduko daben Mar Delgado; eta egunero erabiltzen ditugun objektuak jolas eta sormena lantzen aditua dan Josean Llorente. Taillar guztiak duan izango dira.

autuan

KALERATZEAK STOP

Eguaztenian Kaleratzeak Stop Debabarrenak Eibarko kasu bati lotutako informaziño orrixak banatu zittuan Santander bankuaren parian. Horrekin batera, bixar Donostian "Pobrezia eta desberdintasunak stop!" goibururari jarraituta 12.00xetan bulebarretik urtengo daben manifestaziñora juateko dei egitten dabe: automobillian juateko 10.00etan Untzagan geratuta dagoz eta, bestela, lineako autobusa 10.30xetan izango da.

Toribio Etxebarriako TAO martxan

Eguaztenaz geroztik Toribio Etxebarria kalian aparkatu nahi dabenak automobilla mugidu barik gehixen jota ordu bi emoteko aukeria eukiko dau eta, gaiñera, kalian zihar martxan daguazten hiru makiñetako bati tiketa etara eta kotxian bistan ipiñi biharko dau. Toribio Etxebarrian aste honetan indarrian sartu dan TAO sistemiak Errebalean martxan daganari segiduko detsa eta hamen be tiketa etaratzia duan izango da. Izan be, neurrixak aparkauta daguazten automobillak oin arte baiño sarrixago mugitzia billatzen dau, ia holan erosketak eta bestelako enkarguak egittera etorzen diranak aparkatzeko arazo gitxiago daken.



EGOAZIA

Datorren urterako kalendarixua preparatzen dabiz Egoaziakuak, erretratuan ikusten dituzuen Victor eta Nerearen laguntasunarekin. Bat egin nahi dabenak Egoaziaren egoitzara, Pegorara edo Portaleara juan leike.



Funeraria Ehorzetzeta
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

ZEZENBIDE



AUTO ESCUELA
CURSOS INTENSIVOS

Gabon zorientsuak eta Urte Berri On!!

San Andres, 1 ac **Tel. 943 20 34 45**

AUTOESKOLA


asteko
783
datua

dira gure herrixan RGI (Ingresuak Garantizatzeko Errentia) jasotzen daben lagunak. Horko onuradunak edo benefiziarixuak, bestalde, 1.463 dira: gitxi gorabehera bi lagun laguntza bakotzeko.

Isekin alkartiaren jaixa

Zapatuan egun osuan egongo dira Isekin alkartekuak Untzagan, jai giruan alkartia ezagutzera emoten: 11.00etan ekingo detse egunari, "Araitz, Ixone eta Unai ahateen parkean", Sanfilipporen aldeko ipuin solidarixua saltzeko mahaixa zabaldua. Umieri eragiten detsen gaitza sendatzeko inbestigaziñuan laguntzeko ipuiñak euskeraz, gazteleraz eta ingelesez erosteko aukeria egongo da. Ordu erdi geruago pintxuak eta edarixak saltzeko tabernia zabalduko dabe eta eguardixan Happy FM-ko Borja Rodriguezek ipuin kontalari

saiua eskinduko dau. 13.00ian Nerea Lodosaren koreografixari jarraituta dantzan egingo dabe Ipurua Dantza Txiki taldekuak eta 13.30xetan, barriz, Kaleetan Kantuz abesbatzaren saiua hasiko da. Gurbil tabernakuak lagunduta, 15.00etan herri-bazkarixa egingo da udaltxeko arkupietan (paella, gisatua eta limoi sorbetia, 10 eurotan). Eta bazkalostia girotzeko, Irimo tabernakuak karaokia antolatu dabe (16.30xeta-



tik aurrera). Liburuen salmentari 17.00etan ekingo detse eta tabernia be orduan zabalduko dabe. Jaixa 20.00etan, Eibar-Valentzia taldien arteko partidua hastian agurtuko dabe.

Txakur-kaka jasotzeko kanpaiña



Udalak "Zaindu Eibar" goiburuko kanpaiña abiarazi dau, "herritarrek txakurren kakak jasotzeko daken erantzukizunaz jabetzeko". Horretarako kalietan, lorategixetan eta parkietan aldameneko irudixa daken kartelak ipiñiko dittue. Kanpaiñari ekingo detsan neurri horren atzetik beste batzuk etorriko dirala iragarri dabe agintarixak "herriko toki publikuetan gertatzen diran beste jarduera edo ohitura txar batzurekin behin betiko amaitzeko".



Baba-jan arrakastatsua

Aurreko zapatuan Eibarko Sozialistak antolatu eben baba-janak harrera ezinhobia euki eban eta pentsatzen ebena baiño lehenago saldu zittuen preparutako 250 raziñuak, Elikagaixen Bankuarendako 1.400 euro batuta. Antolatzailliak babak eroatera juandakueri eskerrak emon nahi detsez eskindutako laguntasunarengaittik.

Euskaltegiko oterra

Udal Euskaltegixan, urtero, Gabonak gerturatzen jua ahala, gordeta daken oterra euskal produktuekin betetziari ekiten detse eta aurtan be hala egin dabe, euskaltegiko talde guztien partehartziarekin. Baiña oterra bete ezeze hustu be egitten dabe eta, eguaztenian egindako zozketan, sarixa goizeko 2. maillako taldekuendako izan da. Zorionak eta on egin!



Errebalerako proiektua

Errebalgo ekipamendua gauatzeko proiektua idazteko lehiaketan "Vaumm Arquitectura y Urbanismo" enpresiak aurkeztutako eskintza teknixua hobetsi dabe udaleko teknixuak, 40 puntutik 39 emonda. Lehiaketara aurkeztutako bi proposamenen artian aukeratutako hau egokixena dala begittandu jakue, bestiak beste "esleipen-irizpidiak onduen betetzen dittualako eta parte hartzeko prozesuan oiñarrituta betebiharreko-orixetan udalak azalduetako ideiarekin bat egitten dabelako". Horrekin batera, proiektuak proposatzen dittuan urtenbide teknixuak zein eraikuntzakuak "oso ontzat" jo dittue eta, gaiñera, esleipenerako aurreikusten zan 106.000 euroko kopurua baiño "askoz merkiago" egingo dabe biharra.



HARITZ ELORTZA (Hapiick):

Logistika zerbitzu berria aurkeztu zuten aurreko hilaren hasieran Intelligent Delivery enpresakoek Ermuan, Izarra Centerren duten egoitzan. Haritz Elortza zuzendariak beste lagun batekin batera abiarazi duen zerbitzuari esker, erosketak internet bidez egiten dituen edozeinek Hapiick puntuetako batean jaso dezake eskatutakoa, etxean mezularia noiz joango zaion zain egoteko premia barik.

“Online dendetan erositakoa jasotzeko erosotasuna da eskaintzen duguna”

- Zer eskaintzen du Hapiick-ek?

Paketeak jasotzeko modu berria. Internetetik gero eta gehiago erosten da, baina gaur egun daukagun bizimoduarengatik, mezulari bitartez ailegatzen zaizkigunak jasotzeko orduan traba ugari izaten ditugu: egunaren zatirik handiena etxetik kanpora ematean, mezulariek sarritan arazoak izaten dituzte jendea etxean aurkitzeko, jendeak paketea beste norbaiti jasotzeko eskatu behar izaten dio, edo mezularitza enpresarekin kontaktuan ipini eta beste hitzorduren bat zehaztu... Horiek guztiak saihestu daitezke Hapiick-ek eskaintzen duen zerbitzua erabilita. Paketeak jasotzeko hamar puntu prestatu ditugu Euskal Herri mailan, horietako bat Eibarren, Kantoi gasolindegian: zerbitzua erabiltzen duenak paketea ailegatzen den momentuan telefono mugikorrean abisua eta kodea jasotzen ditu SMS mezu batean eta, kode horrekin, hiru eguneko epean, ondoen datorkionean paketea jasotzeko aukeratu duen puntura joan eta han har dezake. Abantailen artean, besteak beste, entregak jasotzeko ordutegi malgua eta pribatutasuna daude. Izan ere, bideoz zaindutako kokalekuek eta zerbitzua errazteko espezifikoki hautatutako inguruneetan

kokatzeak segurtasuna eta pribatutasuna eskaintzen diote erabiltzaileari.

- Nola bururatu zitzaizuen horrelako enpresa bat sortzea?

Estonian 2008tik martxan dagoen zerbitzua da, hango enpresa batek asmatu zuen sistema eta, Estonian 85 bat terminal zabaldua izan zuen arrakasta ikusi eta gero, Brasil, Finlandia eta Errusiara hedatu du. Horien esperientziaren berri izatean, eta hemen horrelakorik ez zegoela ikusita, Euskal Herriko hainbat enpresa akziodunekin batera guk ere zerbitzu hori eskaintzea bururatu zitzaigun. Espainia eta Portugalerako eskusiba daukagu eta, hasiberriak izan arren, bost urterako plana egin dugu. Epe horretan, terminal berriak zabaltzen joateko asmoa daukagu eta internet bidez egiten diren erosketen merkatuaren %7 guk hartzea aurreikusten dugu. Terminal-sarea 600 bat izateraino zabaltzea espero dugu.

- Zaila egin zaizue proiektua abiaraztea?

Behin ideia edukita, informatika software bat sortu eta armairuak puntu konkretuetan kokatu behar izan ditugu. Enpresa maiatzaren 28an eratu eta urriaren hasierarako hamar terminalak ipinita zeuden. Eta, hiru astetan probak egin eta gero, aza-

rorako zerbitzua edozeinek erabiltzeko moduan eskaintzen hasi ginen. Mugikorarentzat aplikazioa ere garatu dugu, bezeroek erositakoa terminalerako batean automatikoki entregatzea eskatzeko aukera izan dezan.

- Zuen bitartez paketea jaso nahi duenak zer egin behar du?

Erosketa egiten den webgunean, bidalketa-helbidean hapiick helbidea jarri behar da. Hori lortzeko, www.hapiick.com webgunean sartu eta, identifikatu eta gero, "hapiick" bat eskuratuko du erabiltzaileak. Pauso erraz batzuei jarraituta, erabiltzaileak entrega-puntua hautatu eta zerbitzua egiteko behar dugun informazioa sortuko da. Hapiick baten zenbatekoa 1'80 eurokoa da, BEZa barne. Prezio horretan bidalketa Hapiick biltegian jasotzea, Hapiick punturaino eramatea eta terminal automatizatuan kargatzea sartzen dira. Horrez gain, bigarren modalitate bat ere badago: online denda duten hainbatekin elkarlanerako hitzarmenak sinatzen ari gara, zuzenean euren webguneetan gure zerbitzua eskaintzeko. Elkar eta beste enpresa batzuekin hitzarmena badaukagu, zuzenean Hapiick zerbitzua eskaintzeko.

1.711

Enpresa berri



Zuri esker

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



BIHAR DA BONOA ERABILTZEKO AZKEN EGUNA

EMGI-koak pozik
Gabonetako
kanpainarekin

Eibar Merkataritza Gune Irekia Gabonetako kanpainan dago murgildurik, urtero lez hainbat ekimen bultzatuz. Aurtengo beritasun nabarmenena erosteko bonoak izan dira (40 eurotan saldu ziren eta EMGI-ko denda eta komertzioan 50 euroko balioko erosteketa egitea ahalbidetzen dute). Bono horiek arrakasta handia izan dute, baina bihar izango da azken eguna horiek erabiltzeko. Bestalde, elkarteak denda guztiak "flyer-ak" (izar bereizgarriak) dituzte euren erakuslehoetan, eta bono horiek bertan erabili daitezkeela adierazten dute.

Bestalde, EMGI-ko gabon kanpainan sartzen dira ere Urkizun, Anbulatorioan eta Txaltxa Zelaian kokatutako barrakak, aurreneko biak umeentzat eta azkena ne-

rabeentzat prestatutakoak. Eurretan doan ibili daiteke dendetan banatzen dituzten bonoak aurkeztuta -Txaltxa Zelaian 0'50 euro ordaindu behar bada ere-. Ezin dugu ahaztu aurreko zapatuan Astelena frontoian abian ipini zen "txiki-park"-a, lehen egunetik bertatik iazko bisita kopurua gainditu baitzuen. Gehienek EMGI-ren bonoak erabili zituzten (han izandako 346 umetatik, %75-ek erabili zuten).

Bihar arte, gainera, produktuez osatutako 40 otar banatuko dira Merkatarien Elkartearen txartelarekin ordaintzen duten erosleen artean. Otar horien banaketa abenduaren 23an egingo da. Bestalde, Zona 10 elkarteak hala eskatuta, Eibarko Merkataritza Gune Irekiak Ibarkurutzeko iturria apaindu eta argizatzea erabaki du data hauetako ospakizunei kutsu berezia emateko asmoarekin.

EROSKETA
BONUA

50€ko BALIOA DU
EROS EZAZU 40€ren TRUKE!



BALDINTZAK:

- 2014/12/01etik 2014/12/20ra arte baliagarriak.
- Bonuak meta daitezke, baina ez zatikatu.
- Eibarren bizi direnentzat bakarrik.
- Bonu bat NAN edo erroldatze bakoitzeko gehienez.
- * Sendagaiak ez dira sartzen. Parafarmaziako produktuentzat baliagarri.



DENDAK/ZERBITZUAK

Afede
Aixa
Albizu Harategia
Aldazabal
Alimentación Solar
Antxon
Aramburu
Arregi-Dominguez (Ego-Gain)
Arregi-Dominguez (Bidebarrieta)
Arriaundi
Artamendi
Askasibar Intersport
Astigarraga
Audiocentro Igmar
Autoservicio Azpiri
Autoservicio Villaiba
Bagliato
Bambi
Beep Eibar
Bencoba
Burbujas y Más
Capi
Cedry
Centro Óptico Beittu
Chiquitín
Comercial Zabala
Confecciones Roca
Confecciones Vieco
Corral
Cortinas y Persianas Eibar
Dandara
De Capricho
Desván
Dibufec
Dietética Muñoz (Calbetón)
Dietética Muñoz (Urkizu)
Dirdai
Distrito 21
Ditare
Doroti
E&M Fotos
Eduirne
Eguren
Eibarko Bizikleta
Eibarsat
El Corte Inglés (Ego-Gain)
El Corte Inglés (Toribio Etxebarria)
El Tío Palancas
Electro-Aguirre
Errebal Kirolak
Estación de Servicio Azitain
Estación de Servicio Eibar
Estación de Servicio Kanto
Estanco Gisasola
Estanco Toribio Etxebarria
Estética Ibone
Estudios Arrillaga
Etxedreams
Exclusivas Javi
Farmacia Castaño*
Farmacia Elorza*
Farmacia Hnaz Azkue*
Farmacia Laramendi*
Farmacia Lekumberri*
Farmacia Zulueta*
Farmaluz
Federópticos Igmar
Galarreta Activitys
Gaur
General Óptica
Giltzak
Gloss Moda Joven
Goilara 20 Parfum. (Urkizu)
Goilara 20 Parfum. (Calbetón)
Goien
Goiko-Luz
Goritz
Gozoki
Gratzina (Zuloagas)
Gratzina
Guby Chicos (Birjiñape)
Guby Chicos (Zuloagas)
Guby Mujer
Guillermo (Errebal)
Guillermo (Urkizu)
Homme
Ibar Sukaldeak
Ikusimakusi
Info-Coste.Com
Iñaki Rezola Harategia
Iraolagoitia
Irritsa
Itxesi
Izadi
Izane
Jaurregui
Javi Larrañaga Harategia
Jerónimo
Joyería Aguirre
Joyería Alberto
Juli Janari-Denda
Kinkila
Kiñu 2000
Kopiña
La Guinda
Lacuesta
Lahildaga
Lakett
Las Labores de Ainhoa
Leder
Lide
Lotara
Luci

Mabe
Marrodan
Marsi
Meka-Hotel
Mokka Interiorismo
Muga
Mugika
Multiópticas Eibar
Natural
Natural Optics Plazaola
Neure
No Comment
Nona
Oberena
Oihal
Oskarbi Oinetakoak
Otegui
Peluquería Mn
Pictel
Pissa
Pibixak
Quetzal
Refan
Salaberria
San Andrés
Sastreria Azpiri
Selene
Sua
Tapicería Alkor
Thelecer
Tribeka
Trimmer
Tiki
Twins
Txukuna
Umea
United Colors Of Beneton
Urdanibia
Viajes Eroski
Vintage Estilistas
Women'secret
Xare
X-Treme
Zentral Optica
Zurkulu

OSTALARITZA

Afrikan Haritza
Akara
Albert
Aldatz
Anardi
Ankuep Gastropub
Astelena Gastroteka
Atalaya
Aterpe
Baizi
Bakoleku-Vinoteca (Ego-Gain)
Bakoleku-Vinoteca (Urkizu)
Bar Pizzeria Bossa
Bar York
Beleko Taberna
Birjiñape
Club Deportivo Eibar
Café Teatro Tas-Tas
Casino Artista Eibarrés
Cerveceria O hara
Chalcha Jatetxea
Degustación Boulevard
Ego Gain
El Corte Inglés (Ego-Gain)
Ez-Dok
Forchetta
Foxtter
Gurbil
Gure Leku
Guridi Rugby
Hirurok
Iturri
Kalton
Katu Kale
Koskor
Kultu
Lanus
Laurel & Hardy
Leo
Maixa
Mesón Aguiñaspi
Oishi
O jays Irish Tavern
Ongietorri
Paulaner
Pozkari
Punto y Aparte
Restaurante Portalea
Slow
Sokoa
Suberoa
Telepizza
Trinkete
Tunelpe
Txoko
Vivaldi
Xok
Zeharbide
Zubigain

Paula Rojo "La Voz" ikuskizunean ezagutu genuen. Bere ahotsa eta naturaltasunarekin liluratu gintuen gaztea duela 24 urte jaio zen Mieresen (Asturias). Txikitatik izan du musikarako zaletasuna. Solfeo eta piano ikasketak burutu zituen. Abenduaren 26an Coliseoan izango da 2013ean kaleratu zuen "Erase un sueño" country-pop musika biltzen duen diskoa aurkezten. Kontzertuak ematen dituen bitartean bere bigarren diskoa prestatzen dihardu.



Paula Rojo abeslaria Eibarko Coliseoan ikusteko aukera paregabea izango dugu. Bere abestien bitartez, 24 urteko gazte baten istorioak partekatu nahi ditu.

Paula Rojo (abeslari eta musikagilea): "Euskal Herrian erantzuna beti ikaragarria izan da"

- "Érase un sueño" diskoarekin zure esperientziak publikoarekin partekatzen dituzu...

Nire abestien bidez, nik edo-ta nire ingurukoek bizi izan ditugun istorioak kontatzen ditut. Arrastoa lagatzen duten esperientziak isladatzen ditut abestietan, ipuinek liburuetan bezala, denboran zehar iraun dezaten.

- Zein da jendearengana iristeko modua?

Ez daukat ideiarik ere. Uste dut inork ez daukala klabea. Nik egin dudana gauza bakarra, azkeneko bi urteetan gertatu zaizkidan gauza on guztien aurrean naturaltasunez jokatzeko izan da. Gogor lan egin dut, gozatu egin dut eta daukadan onena jarri dut. Besterik ez.

- Zerekin amesten zuen Paula Rojok 12 urte zituenean?

Zorionsua izatearekin eta nire gurasoak nitaz harro egotearekin amesten nuen. Musika ez zegoen nire ametsen artean, esku-raezina ikusten nuen. Baina duela bi urte amets egitera ausartu nintzen eta nire buruari aukera bat eman nion.

- Telebistako "La Voz" programan eman zenuen ezagutzera zeure burua. Nolako balorazioa egiten duzu?

Sekulako aukera izan zen niretzat. Esperientzia ahaztezina izan zen, baina eman nahi nuenaren %5-a baino ez nuen eman. Urduritasuna, presioa eta esperientzia falta izan ziren nire arerio nagusiak.

- Nola iritsi zinen "La Voz"era?

Bihozkada batek bultzatuta iritsi nintzen "La Voz"era. Egun batetik bestera castingean "online" eman nuen izena, eta probetara inolako presiorik gabe joaten hasi nintzen. Ez nuen gauza handirik espero. Baina gauza bat garbi dago: nire bizitzan lehenengoz nire buruari aukera bat eman behar niola sentitzen nuen. Uste dut guztia patuaren ondorioz gertatu zela.

- Zer esango zenieke talentudun gazteei?

Musika ez lagatzeko esango nieke. Eta instrumentuak jotzeko, nahiz eta modu profesionalean ez izan. Gehienbat esperimintatzeko eta sormena lantzeko, eta horrela berezko nortasuna lortzeko. Nortasunean eta pasioan konfidantza izateko esango nieke, eta guzti hori jendearekin partekatzeko. Nik akats handia egin nuen: lotsagatik edo segurtasun faltagatik ez nuen nire pasioa konpartitu eta oraindik damutu egiten naiz.

- ¿"La Voz" bezalako lehiaketetan parte hartzerantz animatuko zenituzke?

Jakina!!! Esperientziarik, kontakturik eta baliabiderik ez duen pertsona batentzat aukera bakarrenetako da. Gainera, esperientziak barrutik aberastu egiten zaitu: norberak bere burua ezagutzeko lagungarria da.

- Zer eskainiko diezu Coliseoan abenduaren 26an izango direnei?

Nire bizitza nire abestien bitartez parte-

katuko dut, besterik ez. Eszenatokiaren gainean sentitzen dudana euren transmititu nahi diet. Etorriko direnak eroso eta gustora egotea espero dut. Nirekin batera Lisardo Prieto (bibolina) eta Alvaro Bárcena (gitarra) izango dira. Biak Dixie Band-eko ki-deak dira. Nire familia musikala: zaindu egiten naute, elkarrekin barre egiten dugu, dena konpartitzen dugu. Askok maite ditut eta amets hau nirekin batera bizi nahi izateagatik eskerrak ematen dizkiet.

- Nolako da Euskal Herriko publikoa?

Zatar gelditzen da hau esatea, baina, egia esan, Euskal Herriko publikoa nire gustokoenetarikoa da. Euskal Herrian egon naizenean erantzuna ikaragarria izan da, benetan, eta ez dakit zergatik... Baina hori da azken finean musika: magia, arrazoi jakin bat gabe sortzen den lotura.

- Zer nolako proiektuak dituzu eskuartearen?

Gogo handiz dihardut bigarren diskoa prestatzen. Udaberrirako kalean egotea espero dut, eta harri eta zur utziko zaituztela aurreratu dezaket. Ondo aztertutako eta landutako aurrerapausua da.

Mugi txartelaren erabiltzaileak

%64



Zuri esker

garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa
BERRIA

Badira aste batzuk herriko kalietan Gabon usaiña hartzen hasi giñala eta, konturau orduko, hamen dakagu Olentzero ate-joka. Izan be, hauxe da Gabonak baiño lehen aurretik dakagun azken asteburua, umiak eta nagusi askok gaur oporrak hartu dittue eta. Gaboneri lotutako ekitaldi morduak datozen egunotarako gure agendak bete egingo dittue, urtarrillaren 5eko Errege kabalgatiari agur esateko sasoia ailegau arte behintzat.

Olentzero NOIZ ailegauko ZAIN

Azken urtiotako martxari jarraituta, Eibart Eibarko Artisau Elkarteak, udalaren laguntasunarekin, Gabonetako Artisau Azokia antolatu dau. Gaur 19.00etan zabalduko daben azokia, baiña, barritasunekin ailegauko jaku. Haundixena, zalantza barik, toki aldaketia izango da: aurten ez dabe karparik ipiñiko Eibarko Bizikleta Plazan, azokia Zuloagarren kaleko 5. zenbakiko garajian, Kultu eta Katu Kale tabernen artian zabalduko dabe eta. Gaurtik hasitta urtarrillaren 5era arte egunero egongo da zabalik (abenduaeren 25ian eta urtarrillaren 1ian izan ezik) Eibart Garage, goizez 11.00etatik 14.00etara eta arratsaldez 17.00etatik 21.00etara

Antolatzailliak azaldu deskuenez, "Eibarko zein kanpoko artisauak ipiñiko dittuen hamaika postuk osatuko dabe azokia eta hamen dator aurtengo beste barritasun nagusixa. Izan be, aurten postuak itinerantiak izango dira: postu bittan artisau ezberdiñak txandakatzen juango dira eta, beraz, egunaren arabera bat edo bestia topauko dau jendiak".

Eibarko partehartzailliak Eskulan (beira), Ana Orozko (bitxiak eta poltsak), Nieves Maidagan (panpin, zaku eta markoak), Marta Irusta (zillarra), Ahiztak (textila), Iratxe Unanue (umeen arropa pintatua), Aittu (erropak), 1964 (dekorazioa), Igor Unanue (egur talla eta txalapartatxoak), Miluta Design (poltsak) eta Marsi loradenda izango dira; eta kanpotik datozenak, barriz, Mama Sew Sew (umiendako babero, mantak, txapelak...), Etoile (bitxiak eta baiñujantzixak), Zilargi (zillarra), Mendaroko txokolatiak, Me Myself and Airin (sujetadoriak) eta artilezko patukuak.

Osagarri modura, hainbat



Gaur arratsaldian Zuloagarren kalia zabalduko dabe Eibart.



ekitaldi antolatu dittue: bixar Eibarko ahizta batzuk egindako gozuak erosi eta dastatzeko aukeria egongo da; hillaren 26xan 20.00etan herriko musikari talde batek kontzertua emongo dau; 27xan, 11.00etatik aurrera Maite Arriagak pintura taillarra emongo dau eta egun berian sushi dastatzeko aukeria be eskinduko dabe.

Gabonetako kontzertuak

Musikiak be toki garrantzitsua beteko dau Gabonetan, herriko taldiak beti be emanaldi berezixak antolatzen dituelako. Lehelengua Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ehun bat ikaslek aste

honetan bertan, eguaztenian, Coliseo antzokixan eskindutako Gabon Jaialdixa izan da. Halanda be, asteburuan, domeka honetan pillatu dittue emanaldi gehixenak. Usartza Txistulari Taldekuak 10.00etatik aurrera kalejiran ibilliko dira eta 12.30xetatik aurrera, barriz, udaletxeko arkupietan kontzertua emongo dabe. Eta ordu berian (12.30xetan) Cielito Musika Bandakuen Gabon Kontzertua hasiko da Coliseuan, Disney-ko pelikulen soiñu bandetako abestixak osatuko daben errepertoriuari jarraituta.

Sostoa abesbatzak, bestalde, saio bikoitza eskinduko dau Ermuko Pispillu abesbatzarekin batera: gaur 20.00etan Ermuko Santiago Apostol elizan kantauko dabe eta domekan, barriz, San Andres elizan emongo dabe kontzertua, 19.00etan hasitta. Emanaldirako programari jarraituta, Ermuko Pispillu abesbatzak, Elisabeth Sarriugartek zuzenduta honetek eskinduko dittue: "Gaudete" (Ben Parry), "El tamborilero" (Bartolome del Moral), "Hator hator" (herri-

koa), "Dadme albricias" (XVI. mendeko anonimua), "Oh, Eguberria" (Irving Berlin) eta "Suite Comercial Navideña" (Jose Bernardo Alvarez); eta Sostoak, Mari Karmen Etxebarriak eta Jesus Mari Sagarnak zuzenduta, "Hodie Christus natus est" (F. Poulenc), "Laudate Dominum" (M. F. de Kruzelaegi), "Niño il mejor" (anoni-mua), "Serenisima una noche" (F. Geronimo Gonzalez), "Las estrellas se rien" (J. Gutierrez de Padilla), "Xicochi, xicochi" (G. Fernandes) eta "Convidando esta la noche" (J. Garcia de Zepedes) abestuko dittu. Amaitzeko, bixak alkarrekin

Eibarko Koru Gaztea eta J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasliak bideo-klipa grabau dabe Joseba Casasolarekin.



"Adeste fideles" (J. Reading) eta "Hator, hator" (J. Guridi) kantauro dittue. Bestalde, domekako kontzertura jende as-

ko juatia espero dabenez, Egoaziak alkartiari buruzko informaziñua zabaltzeko mahai-xa ipiñiko dau.

Olentzeroren zain

Eskoletan gaur oporrak hartu dittuenez, ikasle askok Olentzeroren bisitia aste honetan bertan jaso dabe, baiña halanda be umiak datozen egunotan be Olentzero eta bere laguntzaillak ikusteko aukeria eukiko dabe: gaztetxe-kuak aurten Olentzerori oparixak banatzen lagundu nahi detse eta, horretarako, jostailluak batzen jardun dabe azken egunotan. Hórretxek bixar ba-

natuko dittue, musutruk, 16.00etatik 19.00etara Urkizun (Azpirineko etxe azpitan) ipiñiko daben azoka berezixan. Eta bixar, 17.30xetatik aurrera, Olentzero eta Mari Domingi El Corte Inglesera bisitan juango dira, ikusi nahi dittuen ume guztieri harrerria egitteko.

Baiña urteroko Olentzeroren kalejiria hillaren 24an egingo da, 18.00etan Untzagatik abiatuta. Pantxika astuak tirata juango dan gurbixan igota Olentzerok Calbeton, Bidebarrieta, Julian Etxebarria eta Toribio Etxebarria ziharkatuko dittu, atzera be Untzagara bueltia egin baiño lehen. Behiñ Untzagara aillegauta, 19.00etatik aurrera udaletxe barruan ume guztieri harrerria egiñ eta oparitxo bana emongo detse. Kalejiran, betiko lez, kantatzeko geldiuniak egitten juango dira (Untzagan, Calbeton hasieran eta amaieran, Julian Etxebarria hasieran, Toribio Etxebarria hasieran, T. Etxebarria erdialdian eta Untzagan) eta, eurixa egingo baleu, udaletxeko arkupietan geratuko dirala urreratu dabe antolatzaillak.



Sostoa abesbatzak, Ermuko Pispillurekin batera, emanaldi bikoitza dauka: gaur Ermuan eta etzi Eibarren.

4.784
Pertsonenzako laguntza sozialak

Zuri esker
Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkoragoa. Justuagoa.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
barra
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad
ipareleks.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
Juan Gisasola, 4
943 257 869
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajttoficina.com tlf. 943 20 18 30
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Eraikuntza Erreformak Igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Jardines Iturgintza

Gasa Kalefakzioa Klimatizazioa Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA ZORU ERRADIATZAILEA EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxe: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

AIXA DECORACIONES
José Luis Irionda

Pintura orokorra Margotutako paperak Zoruen kolokazioa PVC zoruak Maketak Alfonbrak Kortinak Etxerakoak Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe. 943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak Pinturak Dekorazioa

Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Domeka handia kros-zaleek Olaben bizitakoa

Aurreko domekan jokaturako Bolunburu Memorialaren 64. edizioan jokaturako bederatziko probetan lasterketa politik ikusteko aukera izan zen, jakinda gainera Gipuzkoako txapelak jokoan zirela. Real Sociedadeko Chakib Lachgar-ek eta Goierri Garaiaiko Maite Maiorak irabazi zituzten absoluto mailako probak eta gure

herriko hainbat ordezkari izan ziren parte hartzen, batzuk gainera garaipenaren bila borrokan. Horrela, Klub Deportiboko Julen Terán bigarrena izan zen jubeniletan eta Txomin Osoro hirugarrena juniorretan. Maila onean jardun zuten ere Aitziber Urkiolak (6.a absolutoan), Pablo Arakistainek (8.a juniorretan), Roberto Gartzia



Chakib Lachgar-ek irabazi zuen absoluto mailako proba.

(11.a beteranoetan), Ander Gisasolak (11.a juniorretan), Nerea Etxanizek (13.a kadeteetan) eta Markel Gutierrezek (14.a jubeniletan). Horrez gain, Pello Osoro 22.a izan zen ab-

solutoetan eta Unai Narbaizak (34.a), Iñigo Unanuek (42.a), Igor Fernandezek (44.a), Asier Selasek (47.a) eta Jonatan Alustizak (48.a) ere proba horretan hartu zuten parte.

Eibar-Valentzia bihar 20.00etan

Azkenean ez zen miraririk izan eta Garitanoren mutilek amore eman zuten Getaferen aurrean eta Kopatik kanpo geratu dira. Horrela, Ligan zentratuko dituzte indarrak Eibar KE-koek, bihar arratsaldean Valentziaren aurka jokatu beharreko partidurekin hasita: ez da erraza izango sailkapeneko goialdean dagoen tal-

deari irabaztea, baina armaginek arrisku postuak atzean lagatzeko urrats berria egiteko aukera dute. Partidurako sarrerak gaur 20.00ak arte lortu ahal izango dira klubaren bulegoan. Klubak, gainera, aukera ematen die partidura joango ez diren bazkideei euren karneta klubaren esku laga eta abantailak lortzeko.

Hierros Anetxeren garaipen bikaina Burgosen

Aparejadores de Burgos sailkapeneko hirugarrenari bere zelaian irabazita, eibartarrek Belenos Rugbyri aurrea hartu eta azken bi postuetatik ihes egin dute. 11-17 lortutako garaipenean (5-10 atsedendaldian) garrantzia



izan zuen Jon Arrizabalaga eta Emanuel Galván betaranoen itzulerak, Pello Urkidiren taldea gutxiago desgastatu zelako. Bihar 16.00etan urteko azken partidua jokatu dute, Unben Oviedo hartuta, pisu bereziko garaipenaren bila.

Urkiko kadeteak igoeraren borrokan izango dira



Kadete mailako Urki A foball taldekoek aurreko zapatuan 8-0 irabazi zioten Eibartarrek-ekoei eta, jardunaldi bakarraren faltan, euren multzoa lideratzen dute eta Ohorezko Kadete mailara igotzeko ligan izango dira.

Urbat Urkotronik-eko igerilariak txapelketetan

Gaztetxoenek egun handia izan zuten Ipurua kiroldegian aurreko zapatuan jokatu zen Gabon Kopan, benjamin eta alebin mailako igerilariekin. Urbateko beste ordezkari batzuk, bestalde, Sabadellen izan ziren Espainiako txapelketetan: Nekane Tejedor eta Ander Izagirre, Urbatekin en-

trenatzen duen Ion Mujika eta Madrilen entrenatzen duen Markel Alberdi. Laurak hobetu zituzten euren markak eta, horrez gain, Alberdik brontzezko domina eskuratu zuen 100 libretan. Asteburuan izango dute eibartarrek hurrengo erronka, Gipuzkoako Kluben Arteko Koparekin.



Mendian korrika egiteko gonbitea hilaren 24rako

Klub Deportiboko mendilasterketako Kalamua Korrikalari Taldeak mendirteera antolatu du hilaren 24 goizerako eta baita interesatuta daudenei parte hartzerako gonbidatu. "Gainera, mendian korrika egiten hasi

edo kirol hau probatu nahi dutenentzat ibilbide egokia izango da, 10 kilometroko Topinburu eta Galdaramiño inguru hori teknikoki erraza delako", antolatzaileen esanetan. Irteera 08.30etan egingo da Deporren parean.

Narbaiza-Exeberria garaile Euskal Herriko Rallye txapelketaren N mailan

Escuderia Eibarko taldea, gainera, gertu egon zen sailkapen orokorreko podiumera igotzeko. "Baina Zamudioko azken proban hainbat arazo mekaniko izan genituen -tartean, koreea bat irten zitzaigun- eta ihes egin zigun 3. postu horrek", dio Iñaki Narbaiza gidariak. Unai Etxeberria kopilotoaren laguntza izan du lorpen horretara iristeko ("duen esperientzia oso baliagarria izan da") guztira zazpi lasterketan jokatu den rallye txapelketa horretan: "Bost Euskal Herrian izan dira eta beste biak Kantabrian". Lehen denboraldia da Narbaizarentzat piloto moduan, "aurretik kopiloto gisa jardun badut ere, Iñigo Olaberekin hiru-lau denboralditan". Aitak piztutako zaletasunari heldu dio iñakik, gero lanean hasi eta "esku artean diru piska bat duzula, autoetan gastatzeko". Lortutako garai-pena ere Federazioaren ones-

pena behar du oraindik, "apelazio batzordeak erabaki behar duelako: hor iruzur mekanikoak eta homologaziotik kanpoko jokabideak izaten direlako tartean". N taldean, eibartarrek irabazitako multzoan, "produkzioko autoek hartzen dute parte, serieko auto baten antza gehien dutenak".

"Azkar joan eta akats gutxi egin": beste sekreturik ez dagoela dio Eibarko gidariak. "Bueno, eta barneratuta izan behar duzun pozoi hori". 2011n etxeko lasterketa egiteko errentan hartutako autoa izan zen abiapuntua berarentzat. Eta Arrateko igoera irabaztea du amets oraindik: "Oso zaila dela jakin arren. Orain, gainera, une zaila bizi du probak eta jendea behar du". Lasterketa bateko emaitzari erreparatuz, "%50 autoa da eta beste erdia pilotoak, kopilotoak eta laguntza-taldea osatzen dute". Lasterketa



Unai Etxeberriak eta Iñaki Narbaizak bikote indartsua osatzen dute.

egunean bost bat lagun izaten dira lanean buru-belarri, eta "garrantzi handia dute babesleek ere, gutxi izanda ere fidelekak direlako". Une honetan Hirurok, Talleres Asua-Erreka eta Engimek dituzte laguntzaile.

Eibarren eta inguruan zale-tasuna badagoela dio eta Gorra Etxeberriak, Gari Rodriguezek eta Eneko Artetxek emandako maila gogoratzen du Nar-

baizak: "Zaletuen laguntza badaukagu, lasterketa guztietara etortzen baitira". Datorren denboraldiari begira -martxoan hasi eta abendura arte irauten du-, suspertzekotan den Renault Kopa berri batean dute burua: "Antzeko autoekin jardungo dugu (aurten Renault Clio batekin hartu dute parte) eta hori bada nahiko pizgarri guretzat".

Astelena frontoia "Katedrala" izango da binakako txapelketan



Pilota profesionaleko 1. mailako binakako txapelketaren hasierak hitzordu finkoa izango du Astelena frontoiarekin, lehen hiru jardunaldietako bost norgehiagoka Eibarren jokatu baitira. Domekan, hilaren 21ean, Irujo-Barriola gaur egungo txapeldunaren eta Ezkurdia-Zabaleta bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango da. Abenduaren 25ean, bestalde, Olizola II.a-Beroiz eta Retegi Bi-Resusta bikoteak izango dira nor baino nor. 28an, domekan,

Xala-Merino II.a eta Bengoetxea VI.a-Aretxabaleta bikoteen arteko lehia erakutsiko digu Astelenako jaialdiak. Urteberri egunean, urtarrilaren 1ean, Mtnez. de Irujo eta Barriola izango dira berriro, oraingoan Bengoetxea-Aretxabaletaren kontra. Eta urtarrilaren 4an enpresa bietako ordezkari banarekin osatutako bikoteak (Asegarceko Pablo Bereasaluz eta Aspeko Zubieta) Retegi Bik eta Rezustak osatutakoari egingo dio aurre.

Birziklatze tasa

%42



Zuri esker

Gipuzkoa hondakinen % 42 birziklatzen ari da eta 2016an % 60ra iritsiko da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa
BERRIA



Joskintza eta jaiotza erakusketa

Gaur 19.30etan Untzagako jubilatutako bertako joskintza taldekoek egindako lanen erakusketa inauguratuko dute eta hilaren 23tik aurrera, gainera, horiekin batera La Salle Isasiko LH-ko 6. mailako ikasleek birziklatutako materialeetatik abiatuta egindako jaiotzak ere ikusgai egongo dira. Urtarrilaren 4ra arte zabalik egongo den erakusketa astegunetan 19.15etatik 21.15etara bisitatu daiteke eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara (abendua 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da).

Txapelketa sozialak Casa de Cantabrian

Aurreko zapatuan hasi ziren Casa de Cantabriak antolatzen dituen mahai-jokoko txapelketak musuko kanporaketekin, eta bihar jarraituko dute, oraingoan tutekoekin. Urtarrilaren 10ean flor modalitatekoak jokatuko dira eta 17an dominokoak. Zapatu guztietako partiden zozketa



16.15etan egingo da eta handik ordu laudenera hasiko dira. Finalak, bestalde, urtarrilaren 24an izango dira, orduan ere 16.30etan hasita. Modalitate bakoitzeko bi finalistentako sariak izango dira.

Trio Medianoche-ren kontzertua

Gaur 20.30etatik aurrera Trio Medianoche taldekoak kontzertua ematen egongo dira (sarrerak 10 eurotan salgai). Aurreko asteko aldizkarian argitaratutako elkarriketan aurreratu zuten, gaurko emanaldian, "betiko erreperitorioaz gain, bost kantu berri eta Serraten abesti baten bertsioa ere" eskainiko dituzte. Gainera, hirukoteak estudio batean grabatu duen lehen diskoa, "Viajando con el Trío Medianoche" Coliseoan 15 eurotan erosteko aukera izango da. Legarrek musika-lokaletan grabatutako lana hamar abestik osatzen dute eta, besteak beste, Los Panchos, Los Tres Reyes, Luis Alberto de Paraná eta Los Paraguayos-en bertsioak batzen ditu.



Hiru txerri txoen antzezlanak

Hilaren 29an hiru eta bederatzirekin bertako umeei zuzendutako ikuskizuna eskainiko du Glu Glu konpainiak, 17.00etan Coliseo antzokian: "Hiru txerri txoak eta otsoa". Antzezlanaren hari nagusia ipuin klasikoan oinarrituta dago, baina lanari gaur egungo edukiak

zein formak gehitu dizkiete: "Komedia, jolas, dantza eta abestiaren bitartez hiritar bizitza berria, dibertigarria eta osasungarria posible dela erakutsiko digute txerri txoek. Beti ere, otso maltzuraren atzaparretatik garai alde egiten badute, jakina!". Galder Perezek zuzendutako lanak



ia ordubeteko iraupena dauka eta parte hartzen duten antzezleeren artean Ylenia Baglietto eibartarra dago. Ugaitz Alegria, Jon Koldo Vazquez eta Andrea Covadongarekin batera ipuineko pertsonaiei bizitza emango diete antzokiko taula gainean. Sarrerak bost euro balio du.

Ikuskizun berri arrakastatsua

Aurreko asteburuan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak bisitan egon ziren Eibarren, Hezkuntza Esparruko aretoan "Txo, mikmak txikia" ikuskizun berria aurkeztzen. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, lau saio eskaini zituzten eta horietara joan ziren ume zein helduek ondo baino hobeto pasatu zuten kontatutako istorioarekin eta pailazoen ikuskizun berriko abesti eta dantzekin.



Eskulan-tailerra ...eta kitto!-n

Barixakuak Jolasian egitasmoaren barruan Gurasoak Berbetaneko guraso eta seme-alabek ederto pasa zuten aurreko barixakuko tailerrean. Talde polita elkartu zen eta gabonetako apaingarriak egin zituzten.



Patxin eta Potxin Coliseoan

Honezkeroko herriko ume eta nagusien artean ezagunak diren Patxin eta Potxin pailazoak abenduaren 30ean Coliseoan egongo dira, "Txangoa" izenburuko ikuskizuna eskaintzen. Oraingoan Patxin eta Potxin artistek txangoa antolatu dute eta ikusleak parte hartzera gonbidatuko dituzte: "Txangoan zehar gerta daitezkeen ezusteko-etarako erne egon beharko dira, mendi, baso, zelaietan zer aurkitu daitezkeen erakutsiko digute eta publikoa ikuskizunaren partaide bihurtuko da, malabar, mimo eta beste hainbaten bidez gorputz espresioa lantzeko protagonistek eskainitako lagun-tzarekin". Sarrerak hiru euro balio du.



laburrak

MADE IN EIBAR

Udalak antolatutako "Made in Eibar" ikus-entzunezko lehiaketaren sari banaketa ekitaldia gaur egingo da 18.30etan, Portaleko areto nagusian. Lehiaketara lan bakarra aurkeztu dute eta ekitaldian hori ikusteko aukera egingo da.

LOMCE-RI EZ

Eibarko Lomceri ez! hezkuntza taldeak legeak gure ikastetxeetara ekarri eta ekarriko duenari buruzko hitzaldia antolatu du datorren urtarilaren 20rako, "aldaketek gure seme-alaben heziketan nola eragingo duten etab. aztertzeko. Horretan laguntzeko, Hezkuntza Topaguneko kide bi gurekin izango dira". Hitzaldia Portalean izango da, 18.30etan eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute.



Flashmob ikusgarria

Aurreko barixakuan flashmob ikusgarriak zeharkatu zuen herria, Urkizuko parkean hasi eta Untzagaraino: Biraka Dantzako ikasleek hainbat koreografia erakutsi zituzten ordubeteetan betetzen joan ziren ibilbidean, kalean zegoen jendearen harridura eta gozamenetarako.

Zeramika ikasleen jaiotza

Gabonak direla eta, Portalea kultur etxearen sarrera apaintzen ipini duten jaiotza Udal Zeramika Eskolan Esther Galarzarekin ikasten duten bederatzi eta hamar urte bitarteko umeek egin dute.



Zuri esker



garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.



mendekotasuna duten 26.472 pertsona artatzen ditugu.

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

azken bi urteotan 1.000 lagun gehiago matrikulatu da euskaltegietan.



Gipuzkoa hondakinen % 42 birziklatzen ari da eta 2016an % 60ra iritsiko da.



Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa BERRIA

eta
kitto!

El Corte Inglés

Gabonetako otarra

zenbaki
irabazlea

5.139

Urtarrilaren 2rako

ez bada irabazlea aurkezten ordezkook
sartuko dira jokoan, orden honi jarraituz:

ORDEZKOAK

10.115 (urtarrilaren 16ra arte)

10.403 (urtarrilaren 30era arte)

6.113 (otsailaren 13ra arte)

**Eskerrik asko
Eibarko herriari!!!**

Lortutako dirua **EIBARREN
EUSKARAREN
ALDE** erabiliko dugu

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZARENGATIK

Arriaundi, Baisi, Bolintxo, Depor taberna, Ego Gain taberna, El Corte Ingles, ...eta kitto!, Echetto - Urkizu, Isasi okindegia, Izadi loradenda, Kultu taberna, La Golosina, Maria Ospital, Mugika harategia, Ogi Berri - Urkizu, Otegui harategia, Udal Euskaltegia, Untzaga prentsa, Zubi-Gain taberna

kamisetak 12 euro
sudaderak 25 euro



bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan

eta kitto

...eta kitto! Euskara Elkartea Urkizu 11
komunikabideak@etakitto.eus
943 20 67 76 - 943 20 09 18

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, M^a VICTORIA Vila Chavez, hillaren 16xan lau urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, HINAS!!, atzo bi urte bete zenduazena. Muxu eta besarkada mordua maitte zaittugun guztion partez.



Zorionak, LAIA, gure etxeko printzesa, etzi bi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UR Agote Gorostizaga, bost urte egin dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Urizar Arruti, astelehenian sei urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NORA!! haraiñegun gure etxeko printzesak 8 urte egin zittuan-eta! Patxua gurasuen eta, batez be, Iker eta Maialenen partez.



Zorionak PAULA, MARTIN eta MARIA zuen urtebetetzietan. Muxu haundi bat Markelen partez.



Zorionak, MARA (astelehenian bost urte egin zenduazena) eta ALAIN (haraiñegun bi bete zenduazena).



Zorionak, NORA, maittia! Domekan, bost urte haundi! Milla muxu potolo gure printzesarentzat.



Zorionak, JULEN!, atzo sei urte egin zenduazena-eta. Famelixa guztiaren partez.

hildakoak

- Ricardo Cabello Martinez. 84 urte. 2014-XII-8.
- Miren Mikele Aranburu Baskaran. 96 urte. 2014-XII-11.
- Julia Berastegi Mendinueta. 89 urte. 2014-XII-12.
- Encarnacion Lasagabaster Padilla. 82 urte. 2014-XII-14.
- Jose Luis Arroitauregi Altuna. 87 urte. 2014-XII-15.
- M^a Luz Arriola Ormaetxea. 85 urte. 2014-XII-17.

jaiotakoak

- Ane López de Viñaspre Martín. 2014-XII-5.
- Noa Pérez de Obanos Cañas. 2014-XII-11.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
20an: 19.30, 22.30
21ean: 17.00, 20.00
22an: 20.30

"Perdida"

Zuzendaria: David Fincher



(2 ARETOAN)
20an: 17.00, 19.45, 22.30
21ean: 20.00
22an: 20.30

"Trash. Ladrones..."

Zuzendaria: Stephen Daldry



(ANTZOKIAN)
20an: 17.00, 19.45, 22.30
21ean: 20.00
22an: 20.30

"6 Héros (Big Hero 6)"

Zuzendaria: Don Hall



(ANTZOKIAN)
21an: 17.00

"Mortadelo y Filemón"

Zuzendaria: Javier Fesser



BARIXAKUA 19

GAZTELEKUA

16.30. Karaokea. Indianokuan.

EIBART GARAGE

19.00/21.00. Eibarko artisauen azoka. Zuloagatarren, 5ean.

MADE IN EIBAR

18.30. Lehiaketaren irabazleari saria ematea eta lanaren emanaldia. Portalean.

KONTZERTUA

20.30. Trio Medianoche (10 euro). Coliseoan.

KARAOKEA

23.59. Mozorrotuta bazatoz, txupittoa doan. Beleko tabernan.

ZAPATUA 20

EIBARLAB'S

10.00/14.00. Teknologia berrien inguruko tailer praktikoak. Udaletxeko patioan.

EIBAR-SAHARA

11.00/19.00. Erabilitako liburuen salmenta, Eibar-Sahara elkartearen eskutik. Untzagan.

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/21.00. Eibarko artisauen azoka. Zuloagatarren, 5.

GAZTELEKUA

17.00. Karaokea. Indianokuan.

OLENTZERO

17.30. Olentzero eta Mari Domingi. El Corte Inglesean.

ISEKIN

11.00. "Araitz, Ixone eta Unai ahateen parkean" (gaztelaraz, euskeraz eta ingelesez) Sanfilipporen aldeko ipuin solidarioaren salmentarako mahaia zabaltzea.

11.30. Taberna zabaltzea.

12.00. Ipuin kontalari saioa, Happy FM-ko Borja Rodriguezen eskutik.

13.00. Ipurua Dantza Txiki taldearen emanaldia, Nerea Lodosaren koreografiarekin.

13.30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren saioa. Untzagan.

15.00. Herri-bazkaria (paella, gisatua eta limoi sorbetea, 10 euro).

16.30. Karaokea. Udaletxeko arkupeetan.

17.00. Ipuinen salmentarako mahaia eta taberna zabaltzea.

20.00. Eibar - Valentzia partidua eta jaiaren amaiera.

DOMEKA 21

EIBAR-SAHARA

11.00/19.00. Erabilitako liburuen salmenta, Eibar-Sahara elkartearen eskutik. Untzagan.

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/21.00. Eibarko artisauen azoka. Zuloagatarren, 5.

GABON KONTZERTUA

12.30. Usartza txistulari taldearekin. Udaletxeko arkupeetan.

GABON KONTZERTUA

12.30. Cielito musika bandarekin. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. "Play / Wii. Indianokuan.

GABON KONTZERTUA

19.00. Sostoa eta Pispillu (Ermua) abesbatzekin. Egoaziaren informazio-puntua. San Andres elizan.

ASTELEHENA 22

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian

EGUAZTENA 24

OLENTZERO

18.00. Kalejira, Untzagatik hasita. Ibilbidea: Calbeton, Bidebarrieta, J. Etxebarria, T. Etxebarria eta Untzaga.

BARIXAKUA 26

GABONETAKO PARKEA

11.00/14.00 eta 17.00/20.30. Sarrera 3 euro (doan, EMGI-ren bonoaz). Astelena frontoian.

ZINEA

17.30. "Shrek. Felices para siempre" umeendako. El Corte Inglesean.

KONTZERTUA

20.30. Paula Rojo (15 euro). Coliseoan.

ZAPATUA 27

GABONETAKO PARKEA

11.00/14.00 eta 17.00/20.30. Sarrera 3 euro (doan, EMGI-ren bonoaz). Astelena frontoian.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. Hiru Erregeen maskara tailerra. El Corte Inglesean.

ASTELEHENA 29

GABONETAKO PARKEA

11.00/14.00 eta 17.00/20.30. Sarrera 3 euro (doan, EMGI-ren bonoaz). Astelena frontoian.

UMEENDAKO IKUSKIZUNA

17.00. "Hiru txerri txoak eta otsoa", Glu Glu konpainiaren eskutik (5 euro). Coliseoan.

MARTITZENA 30

GABONETAKO PARKEA

11.00/14.00 eta 17.00/20.30. Sarrera 3 euro (doan, EMGI-ren bonoaz). Astelena frontoian.

UMEENDAKO IKUSKIZUNA

17.00. "Txangoa", Patxin eta Potxin pailazoekin (3 euro). Coliseoan.

EGUNERO

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/21.00. Eibarko artisauen azoka. Zuloagatarren, 5.

HOROSKOPOA

ARIES

Ahalegindu zaitez eta samurragoa izan. Aldamenekoek eskertuko dute, eurekin azken aldia zakarregia zaude-eta.

TAURUS

Aspaldiko gorrotoek gaur egun dituzun harremanetan oztopo egiten dizute. Kontu zaharrak ahaztea komeni zaizu.

GEMINI

Zure atzetik dabilen horren besoetan eroriko zara uste baino lehen. Gogorregi zabiltza, baina bigunduko zara. Ziur!

CANCER

Datozen egunotan estresa izango duzu etsairik nagusiena. Gauzak lasai hartzea ez da erraza, baina ahalegindu zaitez.

LEO

Lasai! Egunitako tristura eta nekea laster pasatuko zaizkizu. Bestek baino denbora gehiago beharko duzu... Eutsi!

VIRGO

Asteburu bikaina duzu aurretik. Mimos antolatutako "hori" borobil irtengo zaizu eta ez du atzera bueltarik. Egon lasai!

LIBRA

Urteak amaitzen dihardu eta balantzea egiteko ordua da. Ahaztu onak izan ez direnak eta heldu merezi duten gauzei.

SCORPIUS

Hori da hori nerbioa! Ezin zara geldi egon. Guztiari baietz esan behar! Zer egin? Erlaxatu! Zure burua zaindu egizu.

SAGITTARIUS

Non arraio bizi zara? Jaitsi lurrera, gauza mordoa galitzen ari zara-eta. Ze piura! Itxuraz ere hobetuko bazenu...

CAPRICORNIUS


Eskaini denbora gehiago aisialdiari. Lanak irentsi egingo zaitu; eta hori ez da txantxa. Lanerako bakarrik bizi zara?

AQUARIUS

Agenda topera duzu, baina benetan uste duzu apuntatuta dituzun gauza guztiak merezi dutela? Zer nahi duzu benetan?

PISCIS

Espero duzun oparia jasoko baduzu ere, poztasun handiena aspaldian ikusi ez duzun lagun batek emango dizu.



erakusketak

✓ Abenduaren 27ra arte

ROBERTO ZAMANILLO ARNAIZ-EN mikologia argazkien erakusketa. *El Corte Inglesean.*

✓ Abenduaren 28ra arte

ESPERANZA ZABALAREN margo erakusketa. *Topalekuan.*

BEGOÑA RIVAS-EN "Marea baja" argazki erakusketa. *Portalean.*

✓ Abenduaren 31ra arte

JUAN ANTONIO PALACIOSEN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*

IÑAKI REBOLLEDO ETA PILI PALACINEN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

ARGAZKILARITZA IKASTAROKO IKASLEEN argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

✓ Urtarrilaren 4ra arte

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEKOEN erakusketa. *Portalean.*

UNTZAGA JUBILATU ETXEKOEN jostintza lanen erakusketa. *Untzagako jubilatuen etxean.*

LA SALLE ISASIKO 6. MAILAKO IKASLEEN jaiotzen erakusketa. *Untzagako jubilatuen etxean.*

✓ Martxoaren 29ra arte

"**EIBAR INDUSTRIALA 2014**" erakusketa. *Armagintzaren Museoa (Portalean).*

lehiaketak

✓ Arrate Kultur Elkarterako logotipoa

Zer: Logotipoan "Arrate Kultur Elkartea" edo AKE akronimoa agertu beharko dira. Lanak aurkeztea: **Urtarrilaren 22ra arte**, Informazioa: 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean.

farmaziak

✓ barixakua 19

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ zapatua 20

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ domeka 21

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ astelehena 22

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ martitzena 23

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ eguaztena 24

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ eguena 25

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ barixakua 26

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ zapatua 27

EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✓ domeka 28

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ astelehena 29

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ martitzena 30

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI

Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	7			6	1	4		8
	8							
		9				3		7
	1	2		5				
6				3				2
				2		1	8	
5		6				8		
								5
7		1	5	9				2

SUDOKUA

5	7	6	9	4	1	8	3	2
8	2	9	6	3	5	4	1	7
4	3	1	8	2	7	9	5	6
9	4	8	5	6	3	7	2	1
3	1	5	2	7	9	6	4	8
7	6	2	1	8	4	5	9	3
2	5	7	4	1	6	3	8	9
1	9	3	7	5	8	2	6	4
6	8	4	3	9	2	1	7	5

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.
- Sorailuzen Babes Ofizialeko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzitza eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.
- 3 logelako pisua salgai Aldatzen. Lehenengo solairua, berriztuta eta eguzkitsua. Kanpoko igogailua. Tel. 660-683280.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro. Tel. 632-569245.
- Pisu ia berria alokagai Elgetan. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean eta sartzeko moduan. Tel. 606-083992.
- Eibarren pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil. Tel. 660-833346.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Taxi lizentzia salgai Eibarren jubilazioarenatik. Tel. 696-966865.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.
- Taberna traspasatzen da Eibarko erdialdean. Tel. 659-377095.
- Garaje itxia alokagai Ardantzako geltokian. Haundia. 100 euro. Tel. 647-952677.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Eibarko neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta eskolatik jasotzeko. Tel. 658-845081.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 662-277136. Estefani.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-874731.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 658-755640.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernak edo pegorak garbitzeko. Tel. 631-282203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-004773.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-059689.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-754174.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-176974.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Gida baimenarekin. Tel. 631-315363.
- Neska gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-980628.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala, asteburuetan barne. Tel. 631-467031.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-230789.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 636-841158.
- Txoferra eskaintzen da, karnet guztiekin eta garraiolari (trailer) titularekin. Esperientzia. Tel. 633-181350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Arkitektura ikasketaduna eskaintzen da Batxilerraren Teknikoko eta DBH 3-4 mailetako klase partikularrak emateko. Tel. 679-843282.
- Magisteritzan diplomatuak klase partikularrak ematen ditu Amañako zonan. LH eta DBH 1 eta 2. Edozein irakasgai. Esperientzia. Tel. 617-184931. Maite.
- Klase partikularrak ematen ditut. LH, DBH, Batxilergoa. Edozein irakasgai. Taldean edo bakarka. Tel. 610-980628.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Azterketa ofizialerako prestaketa. Irakaslego natiboa. Tel. 652-763264.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. 550 negoziagarriak. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
- Labea duen butanozko sukaldea salgai. Ia berria. Merke. Tel. 628-872295.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Paperezko zakuak josteko makina salgai. Prezio onean. Tel. 665-701424.
- Gurpil-aulkia salgai. Egoera onean. Silikonazko bizkaraldea eta babesteko manta opari. 150 euro. Tel. 943-202042 eta 626-349842.
- Ordenagailu eramangarria salgai. Inpresorarekin. 300 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
- 0'90eko sukaldea salgai, bonbonak eramatekoa eta laborekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua. Berriak. Tel. 617-688311.
- Mahai-tresneri berria salgai. 75 pieza. 160 euro. Tel. 616-533796 eta 943-752480.
- Antzinako Elme heladora salgai. 2 litroko kapazitatea. 200 euro. Tel. 628-714824.
- BH markako eliptikoa salgai. 2015eko abendura arteko garantiarekin. Tel. 645-007388. Asun.
- Umearen silla salgai, Bugaboo Be markakoa, gehi patinetea. 2011koa. Bi urtean erabili. Egoera onean. 360 euro. Tel. 646-274760.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Pailazoaren emanaldietan honakoak laga zenuituzten: euritakoa, txapel urdin disdiratsua, bufanda ile grisdua, Pirritx eta Porrotxen buff-a, buff beltza, txapel arrosa ponpoiarekin, jertse grisa 5 tailakoa, bufanda arrosa eta Scootex txakur panpina. ...eta kitto! elkartearen jaso dezakezue. - Telefono mugikorra aurkitu nuen domeka goizean Ardantzako inguruan. Tel. 943-203205.
- Tom-Tom markako GPS-a, funda zurian sartuta, galdu nuen Eibarren aurreko astean. Tel. 615-797641.

6.4. Bestelakoak

- Azaroaren 30ean Samsung Galaxy Young zuria aurkitu bazenuen, eskertuko gizuke argazkien txartelak Udaltzaingoa lagatzen badituzu.
- Plano Corto elkarteak kolaboratzaileak behar ditu musutruk lan egiteko: web orrialdea eraman, epaimahaikide izan... Tel. 619-449600.

HAUR PARKEA ASTELENA 2014

Abendua 20 / 26 / 27 / 29 / 30 / 31*
Urtarrila 2 / 3 / 10 / 17 / 24 / 31
Otsaila 7 / 21 / 28
Martxoa 7 / 14 / 21 / 28

ordutegia: 11:00 - 14:00 / 16:30 - 20:30

* Abenduak 31ren ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da.

GABONETAKO FERIA 2014

Abendua	
ANBULATEGIA / URKIZU Doan!	5 / 9 / 10 / 11 12 / 13 / 15 / 16 17 / 18 / 19 / 20
TXALTXA ZELAI Bonoa + 0,50€	22 / 23 / 24 / 26 27 / 29 / 30 / 31
1,50€	6 / 7 / 8 / 14 21 / 25 / 28

Urtarrila	
1,50€	1 / 2 / 3 / 4 / 5 / 6

ordutegia
11:30 - 14:30 / 16:30 - 20:30

ANBULATEGIA bakarrik

ANBULATEGIA / URKIZU / TXALTXA

vinos Solera Eibarresa

Ardo, Garagardo eta Likore Banaketa

Solera Eibarresaren
75. urteurrenagatik,
Sanandresengatik,
Eibar KEren
arrakastengatik,
Gabonengatik,

... **TOPA**
ELKARREKIN!!!



45€

Salmenta-puntuak:
www.vinosconsolera.com
Ibur Erreka z/g EIBAR
943201353
soleraeibarresa@telefonica.net
EDO GALDETU OHIKO TABERNAN



Abenduaren 20an eta 27an (10:00etatik 14:00etara)

Gabonetako AZKEN OUTLETak!

SOLERA EIBARRESAREN BILTEGIAN